

Emakume Aske eta  
Barrakalariak

Feminismo iraultzaile eta antikapitalista



**HOMOFOBIA, MATXISMO  
ETA ARRAZAKERIARIK EZ**

**ASKI DA  
ERASO FAXISTARIK EZ**



# Aski da! Eraso faxistarik ez! Homofobia, matxismo eta arrazakeriarik ez!



Samuel erail zuten 'marikoia' oihuka. Polizia bortizki kargatzen ditu LGTBI eskubideen aldeko manifestazioak. Neonaziak Chuecatik pasatzen dira LGTBI pertsonak mehatxatuz eta poliziak babes-tuta. Apezpikuak eta sekta erlijiosoak gaixoak gabela esaten eta sexu-orientaziozko terapiak sustatzen dituzte eta matxismoaren pozoia barreiatzen dute. Justizia patriarkalak kartzela zigorra eskatzen du *Hazte Oir* erakundeak atzerakoien aurka mobilizatzeagatik, eta, aldi berean, erasotzaileak eta sexu jazarleak babesten ditu. Mediki erreakzionarioek abortua edo eutanasia bezalako eskubideak ukatzen dituzte. Eskuin muturrak gorrotoa okatzen du Kongresuan, telebistan eta sare sozialetan.

Vox, PP, Eliza Katolikoak, kasta judizial frankistak eta sistemak berak inposatzen digun errealitate itogarri honen aurka altxatzen gara milioika gazte.

## Indarkeriarik eta zapalkuntzari ez!

Sexu orientazioa eta identitateagatik jasaten ditugun jipoiak, irainak eta jazarpenak izugarri ugari dira. LGTBI pertsonok pairatzen dugun indarkeria estruktural eta sistemikoa ez da berria, eta astez aste eraso gehiagoren berri dugu.

Berdintasun Ministerioaren datuen arabera, LGTBI komunitatearen aurkako gorroto delituak %43 igo dira 2021eko lehen sei hilabeteetan. Eta badakigu ezinezkoa

delo gertatzen diren eraso benetakoa kopurua ezagutzea. Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Agentziak (FRA) adierazten duenez, Espainiako Estatuan 100 erasotik 7 baino ez dira salatzen. Erasoak jasan eta salaketarik jarri ez duten pertsonen %34k adierazi du "Estaturako Seguratasun Indarrekin ez zutela ezer egingo pentsatzen zutela".

COGAM/FELGTBk 2012an egin-dako azterketa baten arabera, eskola jazarpena jasan duten nerabe lesbiana, gay eta bisexualek %43k bere buruaz beste egiteko ideiak garatu zituen, eta %17 behin edo gehiagotan saiatu izan da.

Baina benetan garena izate hutsagatik kondenatzen gaituen diskriminazioa ez da kolpeetan geratzen: gure lanpostue-

tan, klasean, etxebizitza bilatzerakoan, kalean bikotearekin eskutik hartuta joateko beldur garenean... Jazarpen benetan lazgarria da, bereziki trans pertsonen jaso beharrekoa.

## Muturreko eskuina eta kapitalismoa dira erantzuleak

*Todo afeminado o invertido que lance alguna infamia sobre este Movimiento, os digo que lo matéis como a un perro.*  
Gonzalo Queipo de Llano, militar frankista (1936)

*En España hemos pasado de dar palizas a homosexuales a que ahora impongan su ley.*

Iván Espinosa de los Monteros, Voxeko diputatua (2020)

Ez da kasualitatea LGTBI pertsonen nahiz emakumeen eskubideak jo puntuan egotea. PP eta Vox alderdien, sekta ultrakatolikoen eta Elizaren diskurtsoak, eguneroko gure kolektiboaren eta feminismoaren aurka gorrotoa zabalduz, sektore erreakzionarioak adoretu ditu.

Hainbat hamarkadataro borrokaren ondoren konkistatu ditugun eskubideak mehatxu larrian daude. Horrela ikusten dugu Madrilgo Erkidegoan, non Ayusok iragarri duen genero eta LGTBI legeak aldatuko dituela Voxen eskaerak asetzeko. Ayusoko Gobernuak praktikan trans eskubideak ukatu ditu: lehen kontsultarako urtebete arteko itxaron-zerrendak eta kirurgietarako 6 urte artekoak ezarri dira.

Hego Euskal Herrian ere, bide berean hainbat eskubide, paperean onartuak izan arren praktikan ukatu egiten dira. Abortatzeko eskubidea adibidez. EAEan, Katalunyan edota Madril bezala, ospitale publikoetan egindako abortuak %0,7 ingurukoa dira 2000tik gaur egun arte. Nafarroan berriz orain dela bost urte arte, praktikan ezinezkoa zen haurdunaldia borondatez etetea, ez publikoan ezta pribatuan ere, Opus Deik duen indarra-

gatik. Erakunde ultrakatolikoak osasungintzan, hezkuntzan eta beste hainbat eremutan duen indarra, inpuntitatea eta jasotzen duen dirutza publikoa izugarria da oraindik.

Horrelakoak dira Estatu frankista honen moral ustelaren gotorlekuak. Espainiar Estatuko zortzi 8 probintzietan (Avila, Palentzia, Segovia, Zamora, Cuenca, Toledo, Caceres eta Teruel) ez da abortu bakar bat ere jakinarazi 1988 eta 2018 artean. Hori guztia erakunde eta epaileen ezagutza eta onspenarekin gertatzen da.

Makilkla giltzaperatu nahi gaituzte armairuan eta frankismoaren haizuloetara eramanez. Abascalek, Casadok eta konpainiak gerra deklaratzeko digute, ez bakarrik ideia katoliko, apostoliko eta erromatarren doktrinarekin eta epaiekin talka egiten dugulako, baizik eta LGTBI mugimenduaren eta klase feminismo borrokariaren bihotzean taupadaka ari den iraultza hizia botere-suentzat mehatxua delako. Gure banderak eta pankartak hartu eta Estatu osoko plazak homofobiaren eta matxismoaren aurka betetzen ditugunean, faxismoaren, eskuinaren eta bere aliatuen aurka ere borrokatzen dugu, gure borroka merkantilizatu nahi dutenen aurka, eta, azken batean, prekarieta-



tea, desberdintasuna eta indarkeria besterik eskaintzen ez duen sistemaren aurka.

## Borroka kalean dago eta ez parlamentarioa. LGTBI mugimendu iraultzaile eta antikapitalistaren alde!

Borrokari esker asko lortu dugu, baina gure eskubideak formalki legeetan onartu daudenean ere, horrek ez du esan nahi errespetatzen direnik edo gure diskriminazioa txikiagoa denik.

Zoritarrez, PSOE-UP Gobernuaren gertatzen ari da erreakzio maila hori. Asko entzun dugu "LGTBI pertsonak babesteko batasun instituzionalaren" alde lanean ari direla. Baina noizekin? PPrekin? "Homofobia ezkerrean irudimenean bakarrik" dagola dioten horiekin? Konkistatu ditugun eskubideak kendu nahi dizkiguten horiekin, praktikan es-

kubide horiek gauzatzea eragotziz? Ezta pentsatu ere!

Gobernuak ez die eskuinari eta Eliza katolikoari aurre egin nahi izan ikaste-teeetan sexu-hezkuntza inklusiboa ezartzeko. Hezkuntzan dituzten pribilegioei eta kontrolari eusteko aukera eman die, gorroto homofobo eta matxistaren diskurtsoa zabaltzen jarraitzeko aukera eman. Milaka emakumeren abortatzeko eskubide librea, doakoa eta osasun sistema publikoan bermatu gabe jarraitzen dute, eskuinak eskubide hori sistematikoki nola zapaltzen duen jakin arren.

LGTBI kolektiboarentzat eta emakume langileentzat bizitza duina bermatzeko modu bakarria Estatu aparatua faxistez, matxistez eta homofoboz garbitzea da, gure zapalkuntzaz baliatzen direnei aurre egitea, eta eraso egiten ditugunak eta hiltzen gaituztenak modu eredu-garrian zigortzea. Baina horretarako ez da

nahikoa diskurtsoekin, beharrezkoa da baliabideak inbertitzea, pribatizazioekin amaitzea eta kalitatezko osasun eta hezkuntza publikoa bermatzea, besteak beste osasun mentaleko zerbitzu publikoak, doakoak eta eraginkorrak bermatuz.

Inork ez digu inoiz ezer onaritu, kale-tako mobilizazioarekin lehenago lortu ez duguna. Gure borroka sistema zapaltzaile honen aurkako borrokaren parte da. Mugimendu iraultzaile eta antikapitalista bat eraiki behar dugu, auzoz auzo eta ikastetxez ikastetxe antolatuta. Kapitalismoarekin amaituz eta benetako gizarte sozialista eraikiz bakarrik bidali ahal izango ditugu historiaren zabortegira LGTBIfobia, matxismoa, arrazakeria eta hainbeste sufrimenduz; benetan garena izan eta benetako askatasunean bizi gaitzeko gizarte baten alde borrokatuz.

**Batu zaitetz Emakume Aske eta Borrokarietara!**

## Egin ekarpena liburu hau argitaratzen laguntzeko Verkamin

Azken urteotan, milioika emakume gazte eta langile mundu osoan zehar altxatu gara sistema honetan pairatzen dugun matxismoaren, gehiegikerien eta zapalkuntzaren aurka.


Feminista iraultzaileok antifaxismoa, antiarrazismoa eta antikapitalismoa ezarri ditugu gure bandera morean eta une historiko honetan esklabotza ororen aurkako gerra irekia deklaratu dugu. Baina ez gara bide hau hasten lehenak. Borroka honetan aurretik izan ditugun iraultzaile kementsu guztien lekukoa hartu dugu.

Marxismoak emakumearen askapenaren aldeko borroka aitzindaria piztu zuen, emakume iraultzaile, teoriko eta militante handien indar eta ahaleginaren bidez. Horregatik, klase agentaria etengabe saiatu izan da euren idazlanak eta bizitzak ezkatuzten, desitxuratzen edo zuzenean ezabatzen.

Asko dira borroka iraultzailearen lehen lerroan egon izan diren emakumeak. Langile klasearen eta emakumearen askapena erabat bateraturik dagoela aldarrikatzen zuen Flora Tristán sozialista eta feminista; 1871n Parisko Komunaren iraultzaren barrikadetan egon ziren Elisabeth Dmitrieff eta Louise Michel; Sylvia Pankhurst bezalako sufragista internazionalistak; Eleanor Marx bezalako sindikalista nekazekin; Clara Zetkin eta Rosa Luxemburgo Alemaniako komunistak; Errusiako boltxebikeak, Nadezhda Krúpskaya, Alexandra Kollontái, Inessa Armand, Larisa Reisner, Natalia Sedova besteak beste, 1917an Urriko Iraultzarekin desberdintasun eta zapalkuntza sozialik gabeko gizarte

te benetan justu eta demokratikoa eraikitzeari ekin ziotenak.

Emakume langilearen erabateko askapenaren aldeko borroka luze eta gogoangarria, aurretik egon zirenen ondarea aztertzea, borrokari horiek ahanztura interesatutik erreskatatzea eta dagokien tokian kokatzea, hori da *Emakumeak iraultzan (Mujeres en revolución)* liburuaren helburua. Feminismo iraultzailearen aitzindari hauen hamabi biografia biltzen dira liburu honetan. Haiek izan zirelako, gaur gu gara.



Aske eta Borrokarietara eta F. Engels Fundazioaren artean argitaratua



KONTRAPORTADAN HASTEN DA

Emakume Aske eta Borrokarietarik gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu dozenaka kolektibo horiei, Gijongo kaleetan Justizia Pazetat oihukatzen atera zireten milaka lagunei, langileei, gazteei. Izan ere, Pazten familiarikartasuna bidali diozue Estaturako bazter guztietatik, milaka sinadurarekin bete baitituzue epaitegiak, hainbeste kostatutako epaia mantentzeko eskatuz.

Epai batek ez ditu itzultzen indarkeria matxistaren ondorioz eraildako emakumeen eta haurren bizitzak. Baina borroka honi esker lortu dugu Estatu aparatua ukatzen eta kentzen saiatu den justizia. Jurisprudentzia ezartzen duen epai bat lortu dugu, beste biktima batzuen bizitza eta duintasuna defendatzen lagunduko duena. Epaiaren berrespen berri hau ospakizun mingotsa da, jada ez daudenengatik, baina sistema hori nola gainditu daitekeen erakusten du, izan ere, jasaten dugun indarkeria existitzen dela ukatuz kondenatu nahi baikaitu.

Borrokak balio du eta borrokak jarraitzen du. Justizia Pazetat konkistatu dugu, eta borrokan jarraituko dugu jazarpen gaituen gizarte hau eraldatzeko eta erabat aske izateko mundua eraikitzeko. Borroka da bide bakarra eta indar gehiagorekin jarraituko dugu.

## Auzitegi Gorenak Pazten hilketaren matxistaren epaia berretsi du



Bisitatu gure webgunea

[www.libresycombativas.net](http://www.libresycombativas.net)

Batu zaitetz Telegram kanaleran

[t.me/libresycombativas](https://t.me/libresycombativas)

Jarrai gaitzazu sare sozialetan



[www.ezkeriraultzailea.net](http://www.ezkeriraultzailea.net)



# Auzitegi Gorenak Pazen hilketan matxistaren epaia berretsi du

## JUSTIZIA PATRIARKALA GARAITU DUGU BERRIRO!



Irailaren 13an jakin genuen Auzitegi Gorenak behin betiko berretsi zuela 24 urteko kartzela zigorra Pazen hilketan matxistagatik.

Epai ereduari bat lortzeko eman genuen borrokaren ondoren, justizia patriarkala, kasu honetan Auzitegi Gorenetik, erasoaldira pasa zen berriro, Pazen hiltzailearen beste errekutso bat tramitera onartuz. Helegite horretan, Pazen hiltzaileak homizidio zigorra (hilketan baino txikiagoa) eta genero larriak kentzea eskatu zuen. Hau da, 12 urteko zigorra lortzea eta baimenarekin datoren urtean kartzelatik atera ahal izatea zen helburua. Guztiz onartezina!

Hori dela eta, Emakume Aske eta Borrokalarietatik berriro altxatu genuen Justizia Pazentzat kanpaina, Auzitegi Gorenari eskatzeko ez zezala koma bat bera ere aldatu duela urtebete lortu genuen epai historiko hartan, kaleetara atera gi-

nenean, Pazen aurka egindako krimena benetan zen bezala epaitu zedin eskatzeko, hilketan matxista krudela, alegia. Bere garaian, Estatuko fiskaltzari eta abokatuari aurre egin genien, hilketan ukatzen baitzuten, eta Gijon zutik jarri genuen, epaitegien aurrean kontzentrazioak egin ez, justizia Pazentzat eskatuz. Eta berriro kalera atera ginen udazkenean, Auzitegi Gorenak epai hori bertan behera uzteko aukeraren aurrean.

Tortura urteak izan dira Pazen senide eta laguntzat. Ia lau urte dira hiltzaileari aurre egin behar izan diotela, azken minutura arte defendatu duen aparatua judicial matxista eta frankista aurrean izan

duela, eta hainbat komunikabidek Paz kriminalizatzeko egindako kanpaina mespretxagarria jasan duela.

Pazen familiaren kemenari esker, borrokari esker, pandemia betean eta errestrikzioetan egindako manifestazioei esker (Gijongo Epaitegien aurrean, Asturiasko Auzitegi Nagusiaren aurrean hiltzaileak lehen aldiz helegitea auzitegiaren aurrean, eta Madrilgo Auzitegi Gorenaren aurrean) aparatua judicial frankista ustel eta misoginoa garaitzea lortu dugu.

Epaiaren berrespen horrek, halaber, azpimarratzen du borroka balio duela. Matxismoaren aurka eta gaitz hori defendatzen eta elikatzen duen sistema kapitalistaren aurka egunero altxatzen garenek inguratzen gaituen mundua aldatzeko indar ikaragarria dugu.

Kaleetako mobilizazioari esker, Justizia Pazentzat eskatu dugun hogeita hamar kolektibo feminista, sindikatu eta ezkerreko erakunde baino gehiagori esker, lortu dugula esan dezakegu. Epai hau ez digu inongo epailek edo auzitegiak oparitu, mobilizazioarekin erdietsi dugu.

2. ORRIALDEAN JARRAITZEN DU ▶



**EZKER  
IRAUULTZAILEA**

622 174 122  
askeetaborrokalariak@gmail.com  
www.libresycombativas.net

